



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

III. IKERGAZTE NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2019ko maiatzaren 27, 28 eta 29
Baiona, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

GIZA ZIENTZIAK ETA ARTEA

Hiru adibide berri, emakume
bertsolariak beti plazan aritu
diren adierazgarri

Eñaut Agirre-Goia

148-152 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.iii.01.19>



Hiru adibide berri, emakume bertsolariak beti plazan aritu diren adierazgarri

Eñaut Agirre-Goia

*Euskal hizkuntzalaritza eta filologia doktorego programa, UPV/EHU
enaut.agirre@ehu.eus*

Laburpena

Artikulu honetan, bertsolaritzaren historiaz lehen eginda dauden ikerketei datu batzuk erantsi eta zuzendu nahi izan dizkiegu. Bertsolarien aitzindariak emakume izena dute eta hiletariak dira. Hainbat terminorekin nahasmena sortu da, eta gure ustez *hiletari* hitzak denak biltzen ditu. *Hiletari* haiek emakumezkoak ziren, eta XV. mendean euren plaza galdu egin zuten, poliki-poliki; ez ordea, erabat. Hiru adibide berri ekarri ditugu hori ziurtatzen dutenak: Manuela Etxarri Zabaleta, Juana Manuela Irusta Egia, eta Jazinta Arruti.

Hitz gakoak: ahozkoasuna, bertsolaritza, hiletari, plazandre, emakume-bertsolari

Abstract

*In this article we want to contribute and correct some data to the research carried out in the history of «bertsolaritza» (the act of oral verse improvisation). The pioneers of «bertsolaris» (those who orally improvise verses) have the name of female and are mourners. Confusion has been created with some terms, but we believe that the word **hiletari** brings all the terms together. Those **hiletaris** were women, and in the 15th century, they began to lose, little by little, the place that corresponded to them in front of the public; but they did not lose it completely. We present three examples that come to corroborate it: Manuela Etxarri Zabaleta, Juana Manuela Irusta Egia, and Jazinta Arruti.*

Keywords: orality, oral poetry, mourner, female improvisers

1. Ikerketaren helburuak eta metodologia

Lan honetan, lehen egindako ikerketek utzitako ari-muturrei tiraka aritu gara, ondo ulertzen ez ziren terminoak argitu nahian, edo falta ziren datuak aurkitu nahian. Horretarako, bibliografia zaharra berrikusi eta berria aztertu dugu.

Bertsolaritzaren historia egitean, hasierako emakume bertsolariei horrela deitzen zaie: *profazadora, eresiable, erostagile, hiletari...* Guk defendatuko dugu, denak *hiletariak* direla. Terminoetan dagoen salta argitzeko, batez ere autoreek idatzitakoak aztertu, konparatu, eta baloratu ditugu, eta gaur egungo hiztegiek ematen diguten informazioa txertatu dugu.

XIX. mendean, hiru emakume plazaz plaza ibiltzen ziren, bertso kantuan, euren gizonekin. Gizonen izenak bertsolaritzaren historiara pasa dira, emakumezkoenak ez. Guk argitara ekarri nahi izan ditugu. Oinarrizko informazioa (izen-abizenak, jaioteguna, heriotzeguna, familia...) batez ere, Donostiako Elizbarrutiko Artxibo Historikoan aurkitu dugu. Bilaketa gehienak internet bidez egin dira, eta agiri garrantzitsuenak zuzenean kontsultatu.

2. Ikerketaren muina eta ondorioak

Literatura baino lehenagokoa da bertsoa. Bertsoak edo ahozko poesiak, Erick Havelockek dioen bezala, zenbat eta atzerago joan denboran, orduan eta garrantzia handiagoa hartzen du. Ideia orokorra bat eta bakarra da autore gehienetan: antzinakoa da bertsoaren

ohitura hori. Idatziaren faltan, ahozko kulturek erreminta bakarra zuten jakintza gordetzeko: memoria (Havelock 1996; Ong 1987). Eta gauzak memorian gordetzeko lagungarriak dira kantua, erritmoa, errima eta dantza (Lekuona 1978: 3): Lehenengo hirurak bertsolaritzak bereak ditu, eta garai batean laugarrena ere bai seguru asko, Pastoraletako kantua gogora ekartzen digunez. Estrabonen garaian (K.a. 50) kantuan eta dantzan ari ziren euskaldunak (Azkue 1990: 27). Bertsoetatik ez ziren oso urruti egongo kantu haiek.

Manuel Lekuonak artzain-garaiarekin lotu zuen bertsolaritza, eta data bat ere jarri zion: 10.000 urtetik honako kontua omen (Bertsozale Elkarte d.g.; Lekuona 1978: 298):

Euskarazko lehendabiziko testu luze-antzekoa bertsoa da, garbi-garbi: *Beotibarko kanta*. 1321 urteko gertaera batez ari da, Gorritin izandako bataila bat, nafar eta gipuzkoarren artekoa. Esteban Garibaik dakar *Compendio Historial*-ean, 1571ean. (Mitxelena 1960: 66). *Peru Abendaño*koaren kanta, 1443 urtekoa, zer ote da ba, bertsoa ez bada? (Mitxelena 1960: 79-80). Euskaraz ezagutzen den lehendabiziko liburua bera ere bertsoan idatzia da. Bernard Etxepare apaizak idatzi zuen *Linguae Vasconum Primitiae* liburua, 1545ean, eta bertsoan idatzi zuen gaur egunean oraindik bizirik dauden neurrietan eta errima-moduetan.

Gaur ziur gaude, hasiera hartatik bertsolaritza izan dela, eta andre eta gizonen jarduna zela, ez soilik genero batena. Lehendabiziko aipamenek emakume izena daukate, eta gerora, emakume bertsolarien aipamenak urritu egiten badira ere, izan zirenen arrastoak hor dira.

2.1. Hiletariak, eresiagileak, profazadorak... Termino asko, izaera bakarra

Bertsolarien lehenengo aipamenak hiletarienak dira, eta izen-abizenez ezagutzen ditugu. Emakume hiletariak dira, hain zuzen, norbait hiltzean haren omenez edo haren bueltan bertsoak kantatzen zituztenak. Datuekin ziurta daitekeeneraino, horiexek dira bertsolarien aintzindariak (Alvarez 2005). Baina ikusiko dugunez, terminoetan ez dago batasunik, eta batasunik ezean figura asko zirela eman dezake, bat eta bera denean. Horren adibide, Bertsozale elkarteko web orrian «Historia» atalean dioena. Bost termino ageri dira aipamen horretan: profazadoreak, erostagileak, gudu-kantuak, eresiak eta hiletariak. Gudu kantuak kenduta, beste guztiak *hiletari* hitzarekin azaldu daitezke. Tradiziozko euskal hiztegia eta terminologia inork ezagutzekotan, Resurreccion Maria Azkue izan zen (Azkue 1990: 17).

La gente culta conocía ya, desde el siglo xv, estos poemas con el nombre seguramente alienígena *eresia*, tomado del griego *elegeia*, que con la pronuncia francesa *eledxia* (elegía) llegó hasta nosotros. Garibay y Oihenart, entre los antiguos, citan este vocablo *eresia*. No he conseguido oírlo de boca del pueblo, que tiene, para ello, su típica y pura voz: *ileta*.

Ez dago hori baino garbiago esaterik. Milia Lasturkoaren ahizpa hiletaria da Azkuerentzat, eta ondorioz, baita Santxa Hortiz, Santxa Otxoa edo Alosko Usoa ere.

Horren arabera, hiletariak dira, baita ere, hainbat lekutan aipatzen diren *profazadoreak* ere. Hori ez da ofizio baten izena, irain bat baizik. Hitz horrek espáñolez «mingainluze» edo «bazter-nahasle» esan nahi du, Real Academia Española dioenez¹. Zein ziren, beraz, «mingainluze» haiek? Hiletariak dira, hiletetan kantatzen dutenak. Erotagileak hitzaz esan liteke, ez dagoela ondo erabilia. Batetik, erostagile beharrean *erostari* beharko luke, edo haren sinonimo den *adiakari* edo *aldiagile*. Hiletarien tankerako figura bat da, bertsoak kantatu beharrean, lantuak eta intziriak egiten zituen (Azkue 1990: 17).

¹ Mingainluze, bazter-nahasleak.

Real Academia Española hiztegiak hau dio *profazadora* hitzagatik:

profazador, ra De *profazar*. **1. adj. desus.** Chismoso, que con cuentos y enredos procura desavenir a los que se profesan amistad. Era u. t. c. s.

2.2. Debekatzeko eta ezkutatzeko saiakerak

Hasieratik azaltzen dira emakume bertsolariak gure tradizioan. Atentzioa ematen du 1800 urtera arte bildu diren izen gehienak emakumezkoenak izateak. Baina badirudi hor mentalitatea aldatzen hasten dela. Bertsozale elkarteko datu basea esanguratsua da:

- 1400-1700 bitartean, 9 emakume <> 0 gizon.
- 1700-1800 bitartean, 11 emakume <> 14 gizon.
- 1800-1900 bitartean, 19 emakume <> 117 gizon.

Badakigu gero ere emakumeek kantuan segi zutela, baina iada ez da kontuan hartzen, ez zaio leku hori «tokatzen». Pello Errotaren familian asko ziren emakume bertsolariak: Sabina, Joxepa Iñazi, Mikela eta Lukasia (Zavala 1992: 13). Baina inork ez zuen lekurik, jada, bertsolarien munduan (Zavala 1992: 293):

Sabinak dan-dana bertsoan erantzuten omen zuan [...] Ezagutu zuten guztiak diotenez, gizasemea izan balitz bertsolaria izango zan, Pello bere anaia bezelaxe.

Eta horrela geratu dira itzalean, hainbat eta hainbat emakume. Hara, hiru adibide:

2.2.1. Manuela Etxarri Zabaleta (Leitza, 1822-1893)

Manuela Etxarri Zabaleta nafarra zen, Izaban jaioa eta Leitza hazia, eta plazaz plaza ibili zen bertsoan *Segurako itxua* bere senarrarekin (Zavala 1971). 1822an Izaban jaio, eta Leitza bizitu zen oso txikitatik. Bi aldiz ezkondu zen Manuela. Lehenengo senarra Asentsio² Telleria zegamarra zuen, alarguna, eta 1857an ezkondu ziren. Ez zuten seme-alabarik, guk dakigula. Asentsio 1861eko abuztuan hil zen, eta Manuela handik lau hilabetera, abenduan, berriz ezkondu zen, oraingoan, Joakin Luzuriaga Oriarekin, *Segurako itxua*-rekin³. Biak alargunak ziren. Manuelak ez zuen seme-alabarik, baina Joakinek lau zituen. Zein egoeratan zeuden bertsoetan kontatzen du Joakinek berak (Zavala 1971: 123). Seme txikiena, urtea betetzerako hil zen, 1862an. Beste bat, 4 urterekin, 1863an⁴. Manuelak eta Joakinek bi umerekin egin zuten aurrera. Bizitza zaila izan zuten. Zavalak dion bezala «Mundu onek begitarte bigunik erakutsi zien gizagajo aiei!». Diru iturri handirik gabe, ezkondu, eta bertsoak saltzeari ekin zioten. Batek panderoa jo eta besteak gitarra.

Donostian egin zituzten azken urteak, San Antonio Abad Ospitalean. Jende behartsua hartzen zuten ospitale horretan, eta bertako heriotz-agirietan azaltzen dira Manuela eta Joakin. 1884ko uztailaren 12an hil zen Joakin⁵, 60 urterekin. Bederatzi urte beranduago Manuela⁶, 1893ko maiatzaren 14an, 71 urterekin, bihotzeko arazoek eraginda, dio agiriak⁷.

² Gurea da idazkera, agirietako formetan ez baitago batasunik: Ascensión, Ascensio, Asensio...

³ *Segurako itxua*: Joakin Luzuriaga Oria (1824-1884). Heriotza data ezezaguna zen orain arte.

⁴ Datu hau ez dakar Antonio Zavalak, horregatik aipatu dut hemen. «Venancia Luzuriaga Loinaz, párvulo/a». Oñatiko San Miguel parrokiako 8. heriotz-liburuan ageri da, 45r folioa, 82 agiria. Donostiako Elizbarrutiko Artxibo Historikoa. Nolaz azaltzen den Oñatin ez dakigu, baina gaitzen bat zuelako hango ospitalera eramana izan zitekeen, edo bizilekuz aldatuak zirelako.

⁵ Joaquín Luzuriaga Oldria jartzen du Donostiako San Antonio Abad Ospitaleko heriotz agiriak, 5. Heriotz-liburuan, 115 orria, 1560 zk-a. Joakinen kasuan izen-abizenei jarraipena egitea ez da erraza: Joaquín Pablo Luzuriaga Oria ageri da jaiotze agirian. Gerora, ezkontza agirietan Joaquín Lusuriaga Odria ageri da; baita lehen emaztearekin izan zituen bost seme-alaben jaiotze agirietan ere. Bigarren abizenak izan duen eboluzioa ikusgarria da. Jaio zenean Oria zen, gero Odria bihurtu, eta Oldria hil.

⁶ Manuela Echarri Zabaleta agertzen da Donostiako San Antonio Abad Ospitaleko heriotz agirian, 6. heriotz-liburuan, 117 v orria, 75 zk-a. Donostiako Elizbarrutiko Artxibo Historikoa.

⁷ «Muerte natural ocasionada por lesión cardíaca».

Segurako itxuak badu leku bat bertsoaren historian, liburu eta guzti. Manuelak ez, aipamen xumeren bat besterik. Eta badakigu, aspalditik itsutua bazegoen ere, Manuela ezagutu eta gero hasi zela plazaz plaza. Ez ote zuen Manuelak erabaki horretan parterik? Eman izan zaiona baino handiagoa, seguruenera. Hiru bertso-sail gorde dira Manuelak eta Joakinek elkarri kantatzen zizkiotenak (Zavala 1971).

2.2.2 Juana Manuela Irusta Egia (Elgoibar, 1844-1882)

Juana Manuela Irusta Egia bertsoak kantatzen ibili zela gauza jakina da. Hark kantatzen dituen bertsoetan behin eta berriz aipatzen da izena. Haren senarra famatua zen, *Asteasuko itxua* esaten zitzaien bi lehengusuetako bat: Pedro Mari Etxaburua Zelaia (1839-1882) hain zuzen ere. Liburu bateko atala eskaini zien Auspoak (Zavala 1967). Juana Manuela ez da aipatu izan bertsolari gisa, baina bertso horietan erabat azaltzen da gizonari kantuan. Batean, horrela esaten dio Pedro Marik: «Andria, bertsolari ederra zera zu».

Elgoibartarra zen Juana Manuela, 1844ko maiatzaren 27an jaioa. 1866an ezkondu zen, Elgoibarren, Asteasuko Pedro Mari Etxaburua Zelaiarekin, eta zazpi seme-alaba izan zituzten. Horietako bi, segituan hil ziren. Tolosan bizitu zen familia, Arostegieta kalean. Bizitza motza izan zuten. Biriketakoak edo tuberkulosiak⁸ jota hil ziren: Juana Manuela 38 urterekin, 1882ko urriaren 24an; Pedro Mari zortzi hilabete lehenago, 42 urterekin. «Laugarren mailako» hiletak egin zitzaizkien, pobrenei egiten zitzaizkienak.

Besteak beste, bertso-saltzetik biltzen zuten dirua, plazaz plaza ibiltzen zirenean, elkarri sekulakoak esanez. Espektakuluaren parte zela ematen du (Zavala 1967: 317), artikulua honetan aipatzen ditugun beste bertsolarien kasuan bezala. Bost bertso-sail gorde dira eta sail horietako lauetan, Juana Manuelak ere kantatzen du (Zavala 1967).

2.2.3 Jazinta Arruti (Asteasu, 1827-1899)⁹

Jazinta Arruti Asteasun jaio zen, 1827ko abenduaren 27an. Bertso kantuan aritzen zen Jose Inazio Etxaburua Garaiarrekin (Asteasu, 1840-1900). Jose Inaziori *Astiasuko itxua* esaten zioten, goraxeago aipatu dugun Pedro Mari lehengusuari bezala. Asteasuko *Itxutarrak* familiako kide bat zen, eta Auspoako 68-70 zenbakietan atal bat dute (Zavala 1967). Jazinta Arruti bi aldiz ezkondu zela uste dugu. Jose Inaziorekin 1864ko abenduaren 12an ezkondu zen, bigarren ezkontzan. Bi ume izan zituzten, bikiak, eta bat jaio-berritan hil zen.

Jazinta 72 urterekin hil zen, 1899ko martxoaren 11n. Bere ibileren berririk ez genuen izango, bertso-paperetan haren izenik azaldu izan ez balitz. Hark kantatzen zuen sail bat iritsi da gugana. Ezinbestean erreparatu diegu Jose Inazioren bi puntu hauei: «Nire andre Jazintak artu didan gala, bertso berriak para bear dizkidala» (Zavala 1967).

2.3. Ondorioak eta etorkizunerako norabidea

Bestek utzitako hari-muturrei tiraka aritu gara artikulua honetan eta hari-mutur asko utzi ditugu tiratu gabe. Bertsolarien historia egiten dugunean hutsune asko dira, eta beraz, ondorioak hitz larriegitan idazterik ez dago oraindik ere. Hala ere, gauza batzuk zehazten joan gaitzke eta neurri batean, artikulua honetan horretantxe saiatu gara.

⁸ «Tisis pulmonar» dio heriotz agiritan. Tolosako Santa Maria parrokiako 12 heriotz liburua, Juana Manuela: 422. orria, 134. agiri zenbakia; Pedro Mari: 388. orria, 26. agiri zenbakia. Donostiako Elizbarrutiko Artxibo Historikoa.

⁹ Bataio agirian Juana Jacinta Arruti Aizpurua jartzen du. Bi abizenak amarenak dira, eta agiriak dio aita ez dela ezagutzen. Hortik aurrerako agiri guztietan Jacinta Arruti soilik azaltzen da.

1400-1700 bitartean bertsoan aritzen ziren izen gutxiak andrezkoak dira. Kronisten lehendabiziko aipamenek ere «andre inprobisatzaileen garaia» zirela diote. Eta debekuak medio galarazi nahi diren kantu-ohiturak ere emakumezkoenak dira, batik bat. Horrek esan nahi du, emakumeek bazutela bere lekua plazan, eta aitortutako leku bat zela, beti-betitik zetorrena, eta gero galduko zutena.

Hiletariak dira emakume haiek. Terminologian egon zitekeen nahasmen piska bat, baina Azkuek argitu zuen joan den mende hasierarako, zer zen zer. Erabili izan diren beste hitzak kanpotik jarritakoak direla ematen du. *Eresia* edo *eresiagile* hitz «alienigena» jo zituen Azkuek. *Profazadora* berriz, irain bat da, ofizio-izen bat baino gehiago. Hiletari haiena figura bat zen eta oso jakina, Euskal Herri osoan zabaldua zegoena.

Hiletarien figuraren oso tankerakoa da, bera ez bada, bertsolari edo koplariena. Presentzia erabatekoa izan dute gurean, eta ez beti ondo ikusitakoa, agintarien begietatik. Hiletarien jarduna debekatzen saiatu ziren gisan, bertsolariena ere berdintsu pertsegitu izan da urteetan eta urteetan. Andreen kasuan, ordea, bi arrazoiengatik: bertsolari izateagatik eta andre izateagatik.

Azken mendeetan emakumeak bertsoan aritu dira, baina askoz espazio intimoagoetan. Eta trabak-traba plazan kantatu izan dutenek ere bertsolarien zerrendetan ez dute lekurik irabazi. Horren adibide dira Manuela Etxarri Zabaleta, Juana Manuela Irusta Egia edo Jazinta Arruti, senarraren izenaren itzalean geratu direnak.

Ezinezbestean, bertsolaritzaren historia egiten dugunean kontuan hartu beharreko faktorea da emakume bertsolarien lekuarena. Hor egon direla badakigu, eta itzaletik argira ateratzeko lana geurea dugu. Azken urteetako lan asko bide horretan egin dira, eta artikulua honek ere adibide batzuk gehitu nahi izan dizkio bide horri. Gaur egun, emakume bertsolariak plazan lekua irabazten ari dira, baina ez leku berri bat, baizik lehen ere berriena izan zena.

3. Bibliografia

- Alvarez, A., 2005, «Euskal emakume idazleen lekua literaturaren historian. Dorrearen arrakalak agerian uzten», in *Jakin* aldizkaria, 148 zk.
- Azkue, R.M., 1990, *Cancionero Popular Vasco* (3. Edizioa), Bilbo.
- Bertsozale Elkarte (d.g.): «Historia». In *Bertsozale.eus*
- Havelock, Eric A., 1996, *La musa aprende a escribir: reflexiones sobre oralidad y escritura desde la Antigüedad hasta el presente*, Bartzelona.
- Lekuona, Manuel, 1978, *Idazlan guztiak I: Ahozko literatura*, Tolosa.
- Mitxelena, Koldo, 1960, *Textos arcaicos vascos*, Madrid
- Ong, Walter J., 1987, *Oralidad y escritura. Tecnologías de la palabra*, México.
- Zavala, A., 1967, *Alzo'ko Imaz bertsolaria*, Donostia: Auspoa 68-69-70.
- , 1971, *Pastor Izuela (1780-1837), Ezkioko ta Segurako itxuak*, Tolosa: Auspoa 106
- , 1992, *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz (1840-1919)*. Lizarra: Auspoaren Sail Nagusia 5.